

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Diru-laguntza izenduna ematea Laudio Ikastola ikastetxeko funtzionamendurako eta mantentze-lanetarako. 2019 urtea

2019ko maiatzaren 23 egunean, Laudio Udaleko alkate-udalburuak 1224 dekretua ebatzi du, 2019 urterako Laudio Ikastolari izendun diru-laguntza ematea onartu duena.

Ebatzi egin da 54.484,00 euro emango zaizkiela ikastetxeko funtzionamendurako eta mantentze-lanetarako. Funtzionamenduko edo mantentze-lanetarako gastutzat hartuko dira langile irakasleen gastu arruntak, betiere, beste erakunde publikoek diruz laguntzen ez badi-tuzte, eta garbitze-lanetako langileen gastuak.

Laudio, 2019ko ekainak 20

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE